


ESKUIN BOTOIAK

- 23
- 21 22
- 19 20
- 17 18
- 15 16
- 13 14
- 11 12
- 9 10
- 7 8
- 5 6
- 3 4
- 1 2



EZKER BOTOIAK

- 12 10
- 11 9
- 6 8
- 5 7
- 4 2
- 3 1


○ HAUSPOA ITXIZ

○ HAUSPOA IRIKIZ



AZALPENAK

Zirkulu edo borobilen barruan ageri den zenbakia eskuin botoiei dagokie:



Eskuin teklatuko 11. botoia hauspoa itxiz jo behar dela esan nahi du.

Hatzen irudiak zirkuluen ganean jartzen dira:



Eskuin teklatuko 11. botoia hauspoa irikiz eta **HATZ NAGIAREKIN** jo behar dela esan nahi du.

Ezkerreko teklatuko botoiak zirkuluen azpian adierazten dira:




Eskuin teklatuko 15. botoia hauspoa irikiz, hatz luzearekin eta **EZKERREKO TEKLATUKO 1. BOTOIAREKIN** batera jo behar dela esan nahi du.

Batzuetan, **ZIRKULUAREN AZPIAN EZ DA ZENBAKIRIK AGERTZEN:** eskuin teklatuari dagokion botoia beraz, ezker teklatuaren laguntzarik gabe jo behar dela esan nahi du.




Zirkuluak elkarrengandik bananduta ageri badira, botoi bakoitza banaka jo behar da:



Lehenengo eskuin teklatuko 9. botoia hauspoa itxiz, hatz luzearekin eta ezker teklatuko 11. botoiarekin batera joko genuke.

Ondoren, 9. botoia utzita, eskuin teklatuko 10. botoia hauspoa itxiz, hatz erakuslearekin eta ezker teklatuko 12. botoiarekin batera joko genuke.

Zirkuluak elkarri lotuta agertzen badira, bi botoiak batera jo behar dira:




Eskuin teklatuko 7. eta 5. botoiak, bakoitzari dagokion hatzekin, hauspoa itxiz eta ezkerreko teklatuaren laguntzarik gabe **BATERA** jo behar direla adierazten du.

BESTE IRUDI ETA ZENBAKIAK:


Azaldutako irudi eta zenbakiez gain, honakoak ager daitezke:

Zirkuluaren gaineko zenbakiak, adierazten den eskuin teklatuko **botoia zenbat aldiz** jo behar den esan nahi du. Kasu honetan, 14. botoia hauspoa itxiz 4 aldiz joko genuke.




Zirkuluaren azpian ageri diren zenbaki, puntu eta komek, jo behar den eskuin teklatuko botoi horren **aldi bakoitzari dagokion ezker botoiak** adierazten dituzte. Kasu honetan, 14. botoiaren lehenengo aldian ezker teklatuko 1. botoiak lagundurik jo behar da; bigarren aldia, ezker teklatuaren laguntzarik gabe; hirugarren aldia ezker teklatuko laguntzarik gabe; eta laugarren aldia ezker teklatuko 2. botoiaren laguntzarekin jo behar da.


Zirkuluaren edo zirkuluen azpian ezker botoien zenbaki bat baino gehiago ageri direnean, eskuin teklatuari dago(z)kion botoia(k), ezker botoiak banaka jotzen ditugun bitartean zapalduta eutsi behar dira, nota luzeak dira.



Kasu honetan, eskuin teklatuko 13. eta 11. botoiak batera zapalduta eutsi behar dira, hauspoa itxiz, dagokien hatzekin, eta, ezkerreko teklatuko 7. botoia behin eta 8. botoia bi aldiz jotzen dituzun bitartean.



Zirkuluena gainean batzuetan agertzen den honako irudiak, adierazitako botoiak azkar jo behar direla adierazten du. Solfeoko terminoetan hirukotxoak edo tresiloak lirateke (kalejiretan semikortxeak).




PARENTESIAK: ageri diren kantu zatiaren lehenengo aldian edo eta bigarren aldian jo beharreko esaldiak biltzen dituzte bere baitan. Alegia, zatia jotzen dugun lehen aldian 1 zenbakia duen parentesi tartea joko genuke, 2.-a ez; zati bera bigarren aldiz jotzen dugunean berriz, 1 zenbakidun parentesi tartea ez genuke joko eta 2. parentesi tarteko esaldia joko genuke. Solfeoko terminoetan, 1. edo eta 2. “kajoiak” adierazten dituzte.




Ezker teklatuko botoien zenbakiak **zirkuluak bilduta eta elkarri lotuta** ageri direnean, adierazitako ezker botoiak batera zapalduz jo behar direla adierazten du.

Kasu honetan, eskuin teklatuko 11. botoia, hauspoa itxiz, hatz luzearekin eta ezker teklatuko 3. eta 4. botoiak batera zapalduz jo behar da.

Batzuetan **zirkuluan bilduta ezker bakarra** ere ager daiteke, beste ezker bati lotuta egon gabe: adierazitako ezker botoia erritmikoki kantuan zehar adierazitakoak baino luzeagoa egin behar dela esan nahi du.



Ezker teklatuko zenbakiaren aurretik **marratxoa** ageri denean, adierazitako eskuin teklatua jotzen hasi eta apur bat beranduago ezkerra jotzen hasteko irudia da; alegia, ez lirateke bi aldeetako botoiak batera jotzen hasiko, eskuina hasi eta ondoren ezkerra erantsiko genuke.



Eskuin teklatua adierazten duten zirkuluen artean agertzen den **puntuak**, adierazitako ezker teklatuko botoia bera bakarrik jo behar dela esan nahi du, eskuineko teklatuaren laguntzarik gabe. Solfeoko terminoetan isilunea litzateke.

Kasu honetan, 13. botoiaren eta 8. botoiaren artean isilune bat legoke, ezkerreko teklatuko 9. botoia bera bakarrik joz.



Kantuan zehar agertzen den **izartxoak** bukaera adierazten du. Kantu osoa egin ondoren, izartxoa ageri den puntutik partituraren bukaeran agertzen den bigarren izartxora salto egin behar da, eta azken izartxo horren jarraian idatzita dagoen esaldiarekin kantua bukatu. Solfeoko terminoetan Coda litzateke.